



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

2025eko azaroaren 4ko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko azaroaren 4an arratseko zortzietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: FALXA Odile, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ahalordeak: DACHAGUER Peiok LEKUMBERRY Xantxori

Ezin etorriak: AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, HEGUY Antton, GOICOECHEA Iñaki

Saioko idazkaria: FALXA Odile

Deialdiaren data: 2025eko urriaren 31a

Afixatze data: 2025eko urriaren 31a

6. ERABAKIA: GRALL ZERBITZUA: EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAK URRIRIK ESKU UTZITAKO ZERBITZUA ERABILTZEKO HITZARMENA

Lurraldeko elkargoetako kode orokorraren L2143-3 artikuluen arabera, Euskal Hirigune Elkargoak eta lurraldeko 5 000 biztanle baino gehiagoko 15 hiriek Herriarteko Helgarritasunerako Batzorde (HB) bat eta Herrietako Helgarritasunerako Batzordeak (HB) sortu dituzte.

Batzorde horien betebeharra honakoa da, besteak beste:

- Jadanik dauden eraikinen, bideen, eremu publikoen eta garraioen helgarritasunaren egoera akta egitea.
- Ahalmen urrikoendako eta mugikortasun urrikoendako helgarritasuna xeheki azaltzea ahalmen urritasunaren arabera, garraio kodearen L1112-1 artikuluan deskribaturiko lehentasunezko geldilekuetatik berrehun metroko inguruan diren ibilbide eta bide nagusienetara dagokienez.

Aldi berean, LOM legearen 27. artikulua garraio publikoko lehentasunezko geldileku bat bederen duten elkargo guztiak eraikinen eta bideen datuak biltzera behartzen ditu, geldilekutik 200 metroko inguruan.

Datuen bilketaren helburua erabiltzaileak informatzea denez, Euskal Elkargoa eta 5 000 biztanle baino gehiagoko hiriek biltzen dituen Herriarteko eta Herrietako HB sareko hautetsiek lurralde osoarendako eta denei helgarri zaien tresna numeriko bera erabiltzeko beharra aipatu dute.

Zerbitzuek proposaturik, Herriarteko eta Herrietako HB sareko hautetsiek GLORYTECH enpresak sortu duen Grall aplikazioa hautatu dute, argibide geolokalizatuen zerbitzua eskaintzen duena. Hona hautu horren arrazoiak:

- Aplikazioa 3 urtez esperimentatua izan da, CEREMA, Glorytech eta Euskal Elkargoaren arteko lankidetzaren baten harira. Eginiko lanak Glorytech enpresari helgarritasuna hobetzeko erreferentzia orokorraren arau guzietan jarraitzeko bidea eskaini dio, proiektuan parte hartzen duten aholkularien urrikoen elkartearen igurikapenei guziz erantzunez.
- Aplikazioa ahotzaren bidez mana daiteke, erabiltzaile guziekin erraz erabil dezaten.
- Idatzizko eduki guztiak berehala itzul ditzake 64 hizkuntzetara, euskara eta gaskoi-okzitaniera barne.
- Erabiltzailearentzat urriko da %100ean eta konturik sortu gabe erabil daiteke.
- Glorytechek ez du datu pertsonalik gordetzen edo berriz saltzen.
- Aplikazioak argibide geolokalizatua lortzeko bidea ematen dio erabiltzaileari. Protokolo anitzetan arabera erabiltzen da (GPS, Bluetooth, QR kodea, QR argiak, NFC). Mota guzietako edukiak irakurtzen ditu (testuak, irudiak, bideoak, audioak, estekak, fitxategiak).
- Elkargo batek erabil dezakeen aplikazioaren gaitasun anitzak kasu ugari erantzuten die (informatzea, abisua ematea, animatzea...) eraikin baten barnean eta kanpoan.
- Obragina beregain da guziz Grall argibide gunea eta honen edukia sortzeko.
- Glorytech enpresak mundu mailako garapena du xedetzat hartzen.
- Glorytech enpresak bere aterabideak sorturiko karbono-eragina orekatzen du zuhaitzak landatuz sorturiko argibide gune bakoitzerako.

Zerbitzu berri bat plantan ezartzeko kostuak ahal bezainbat murrizteko xedez, Herriarteko eta Herrietako HB sareko hautetsiek Grall abonamendurako aterabide bateratu bat ikertu izatea eskatu dute.

Ikerketaren ondotik, arrazionalizazioa, zerbitzuen antolaketa ona eta elkartasuna ardatz, Herriarteko eta Herrietako HB sareko hautetsiek Grall zerbitzua erosteko eta eskuragarri ezartzeko bideak honako arauen arabera gauzatzea eskatu dute.

- Euskal Elkargoak Grall zerbitzua erosten du eta lurraldeko herrien esku ezartzen du;
- Grall zerbitzua erabiltzeko urteko gastuak Euskal Elkargoa eta 5 000 biztanle baino gehiagoko 15 hirien artean banatuko dira (Angelu, Baiona, Biarritz, Bidarte, Bokale, Ziburu, Kanbo, Hazparne, Hendaia, Mugerre, Donibane Lohizune, Senpere, Hiriburu, Urruña eta Uztaritze), 5 000 biztanle baino gutxiagoko beste 143 herriek zerbitzua urriko erabiltzen ahalko dutelarik.

Argibide gisa, 2025. urterako harturiko abonamendu tartearen kostua 19 000 €koa litzateke, BEZa gabe.

Euskal Elkargoa eta hirien arteko banaketa honako arauen arabera egiten da:

- Urteko abonamenduaren kostua: 19 000 € BEZa gabe
- Euskal Elkargoko parte finkearen kenketa: -13 000 € BEZa gabe
- Hots 6 000 € banatzeko, BEZa gabe, %70 Euskal Elkargoaren gain eta %30 5 000 biztanle baino gehiagoko hirien gain.

Ororen buru, aurrekontua honakoa da:

- 17 200 € BEZa gabe Euskal Elkargoaren gain,
- 1 800 € BEZa gabe 5 000 biztanle baino gehiagoko hirien gain,
- Urriko 5 000 biztanle baino gutxiagoko herrientzat.

Hitzarmenak (honen eredia eratzirik) Grall zerbitzua herriaren esku uzteko moduak finkatzen ditu, 2025eko urtarilaren 1ean indarrean sartu direnak.

Mugikortasunen norabideei buruzko 2019ko abenduaren 14ko 2019-1428 legearen arabera, bereziki 27. artikulua;

Garraioen kodearen arabera, besteak beste L.1112-1 artikulua;

Lurralde elkargoetako kode orokorraren arabera, besteak beste L. 2143-3, L. 5216-5 eta L. 5211-10 artikulua;

Lurralde elkargoetako kode orokorraren L.5211-4-3 artikulua arabera;

Euskal Hirigune Elkargoaren sortzeari buruzko 2016ko uztailaren 13ko 64-2016-07-13-011 zk. prefetaren erabakiaren arabera;

Grall zerbitzua herrien esku ezartzea onartzen duen 2024ko urriaren 22ko Euskal Elkargoko kontseilu iraunkorraren deliberoaren arabera;

Herriko kontseiluari eskatua zaio:

- Euskal Hirigune Elkargoak erosi duen Grall zerbitzua esku ezartzeari buruzko eratzikiriko hitzarmena onartzea;
- auzapezari edo honen ordezkariari hitzarmena eta honi loturiko agiri oro izenpetzeko baimena ematea beharrezkoa izanen den aldi oro.

Jardunean diren kideak: 15

Presente direnak: 8

Adierazi diren bozkek: 10 (9 presente eta ahalorde 1)

ALDE: 10

KONTRA: 0

ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2025eko azaroaren 13an

Auzapeza:

Auzapeza Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2025eko azaroaren 13an argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.